

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO 2016KO OHIKO DEIALDIA

2. AZTERKETALDIA

LABURPENA

NORK HAR DEZAKE PARTE? (4. oinarria)

2016ko martxoaren 16tik irailaren 24ra bitartean Osakidetza lan kontraturen bat eduki duenak, edo senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan dagoen langileak.

ZEIN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNETARA AURKEZ DAITEKE? (5. eta 6. oinarriak)

Hizkuntza-eskakizun hauetako **bakarrera** aurkeztu daiteke:

- 1.HE
- 2.HE
- 3.HE
- 4.HE (3HE Osakidetzako langileen erregistroan baliokidetu izatea*)

* Eskatzen den hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiririk ez badago erregistratuta Osakidetzako langileen Erregistroan, izangai horiek laugarren hizkuntza-eskakizuneko probetan parte hartzeko eskabidearen fotokopia (intranet bidez egindakoa) eta hirugarren hizkuntza-eskakizuna **baliokidetzeko eskabidea** (behar bezala beteta eta dagokion dokumentazioarekin) aurkeztu behar dituzte euren zerbitzu-erakundearen **inskripzio-epaiearen barruan**.

IDATZIZKO AZTERKETAK EGITEKO SALBUESPENA (16. oinarria)

Aurreko azken prozesuko idatzizko ulermena eta idazmena gainditu bai, baina ahozko probak gainditu ez zituzten izangaiak, **salbuetsita daude idatzizko probak egitetik egiaztatze-prozesu honetan**. Aurreko prozesuan salbuetsita egon eta ahozkoa gainditu ezean, oraingoan proba guztiak egin behar dira.

IZEN-EMATEA (7. eta 8. oinarriak)

EPEA: irailaren 10etik (08:30) 24ra (23:59).

NOLA: Eskabide elektronikoa betez

Helbide elektronikoa:

Intranet: – <http://www.osakidetza.net> (honen barruan bide honi jarraitu behar zaio: Profesionalak > Euskera > Euskarako informazio sistema > Aplikaziora sartu > Sartu > egiaztapenak > 2016ko ohiko deialdia – II > Eskabideak).

Internet: <http://www.osakidetza.euskadi.net> (honen barruan bide honi jarraitu behar zaio: Osakidetza > Profesionala naiz > Euskara > Ikastaroak, Egiaztapenak,... > egiaztapenak > 2016ko II. ohiko deialdia > Eskabideak).

AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

	2016-II azterketaldia
Izen-emate epea	irailaren 10etik 24ra
Azterketa idatzia	azaroaren lehen hamabostaldian
Ahozko azterketa	abenduaren erdi aldean
Behin-betiko emaitzak	urtarrilean

AZTERKETEN EGITURA

Europako Erreferentzi Marko Bateria egokituta

	AZTERKETA IDATZIA	AHOZKO AZTERKETA
1.HE (B1)	IRAKURMEN PROBA (3 irakurgai, 25 galdera) + 2 IDAZLAN (110min)*	AHOZKOAREN ULERMENA (3 entzungai, 25 galdera) + MINTZAMENA BIKOTEKA
2.HE (B2)	IRAKURMEN PROBA (3 irakurgai, 25 galdera) + 2 IDAZLAN (125min)*	AHOZKOAREN ULERMENA (3 entzungai, 25 galdera) + MINTZAMENA BIKOTEKA
3.HE (C1)	IRAKURMEN PROBA (3 irakurgai, 25 galdera) + 2 IDAZLAN (150min)*	AHOZKOAREN ULERMENA (3 entzungai, 25 galdera) + MINTZAMENA BIKOTEKA
4.HE (C2)	IRAKURMEN PROBA (3 irakurgai, 25 galdera) + 2 IDAZLAN (190min)*	AHOZKOAREN ULERMENA (3 entzungai, 25 galdera) + MINTZAMENA BIKOTEKA

*aurreikusitako iraupenak

Azterketen inguruko xehetasun gehiago Osakidetzako web orrian "Azterketak: egitura eta ereduak" atalean.